

Bertaratutako kideak:

**Pablo Arriazu Amat**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Pilar López Valderrama**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)

**Gil Sevillano González**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Santiago Álvarez Folgueras**

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

**Antonio Bellido Pérez**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Arantxa Ruiz Vidorreta**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldia**

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

**María Jesús Salanueva Uriarte**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT).

**Iosu Mena Sarasola**

Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

**Ortzi Iriarte Garmendia**

Iruñean, 2023ko ekainaren 28ko 17:00etan, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna idazkari dela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
2. Kontseiluburuaren informazioa.
3. 8/2023 Irizpenaren zirriborria.
4. 9/2023 Irizpenaren zirriborria.
5. 10/2023 Irizpenaren zirriborria.
6. 11/2023 Irizpenaren zirriborria.
7. 12/2023 Irizpenaren zirriborria.
8. 2023ko 1. seihilekoko kontuen zirriborria.
9. Galde-eskeak.

Ikastetxe publikoetako irakasleen  
ordezkaria (LAB)

**Pedro Rascón Macías**

Aitortutako ospea duen pertsona

**Mikel Rodríguez Aguirreche**

Enpresarien elkarten ordezkaria.

**Isabel Fernández Pan**

Sindikatuaren ordezkaria

(UGT)

**María Teresa Módol Betriu**

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen  
ordezkaria (CONCAPA)

**Josu Reparaz Leiza**

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate  
titularren ordezkaria

(Nafarroako Ikastolen Elkartea)

**Tomás Rodríguez Garraza**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Sonia Rivas Borrell**

Unibertsitateen ordezkaria

(Nafarroako Unibertsitatea)

**Mari Luz Sanz Escudero**

**Bideokonferentzia bidez hartu du parte.**

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen  
ordezkaria (CERMIN)

**Begoña Unzué Vela**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Cristina Bayona Saez**

Unibertsitateen ordezkaria

(NUP)

**Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe**

Toki entitateen ordezkaria

**José Paulos Vázquez jauna**

Ikastetxeetako Administrazioiko  
eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria.

**María Rodríguez Morán**

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen  
ordezkaria (HERRIKOA)

Ezin etorria adierazi dute:

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López**

Ikastetxe publikoetako irakasleen  
ordezkaria (AFAPNA)

**Javier Azanza Fuentes.**

Unibertsitatetik kanpoko Nafarroako  
ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria.

Ez dira bertaratu:

**Marta Díez Napal**

Ikasleen Gurasoen Elkarten  
Federazioen ordezkaria  
(SORTZEN)

**José Jorge Lanchas Rivero**

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate  
titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

**Teresa María Arriaga Iraburu**

Representante de Directores y Directoras

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien  
ordezkaria

**Germán Chocarro Garbayo**

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen  
ordezkaria (BRITILA)

**Mario Fabo Caleo**

Toki entitateen ordezkaria

**Patricia Fanlo Mateo**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria  
(I-E)

**Ainara González Rubio**

Berdintasunaren alde lan egiten duten  
elkarteen ordezkaria

Kontseiluburuak Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurari jakinarazi dio Hezkuntza Departamentuko kontseilariak osoko bilkura honetan parte hartzea eskatu duela eta, ondorioz, hitza eman dio.

Kontseilariak adierazi du, hori osoko bilkurak legealdian eginen duen azken bilera denez, eskerrak eman nahi dizkiela Nafarroako Eskola Kontseiluko kideei, COVID-19aren pandemian Nafarroako ikasleak ikastetxeetan bertaratzea lortzeko helburuaren alde egindako lanagatik. Halaber, eskerrak eman nahi ditu, bete delako Nafarroako Eskola Kontseiluari Hezkuntza Itunaren inguruan egindako enkargua, eta lan egin delako hezkuntza sistema hobetzeko behar ziren zenbait hezkuntza araudi tramitatzeko.

### **1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.**

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bileraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

## **2. Kontseiluburuaren informazioa.**

Kontseiluburuak Nafarroako Eskola Kontseiluak 2023ko maiatzaren 25etik ekainaren 28ra bitartean izandako jardueraren berri eman du.

## **3. 8/2023 Irizpenaren zirriborroa.**

Kontseiluburuak adierazi du 6 zuzenketa aurkeztu direla, eta hasiera eman dio horiek eztabaidatu eta bozkatzeko prozesuari.

María Jesús Salanuevak hartu du hitza, bere zuzenketen aurkezpena defendatzeko.

1., 2., 3. eta 4. zuzenketak bozkatu dira, eta baztertu egin dira, emaitza honekin: aldeko 5 boto, aurkako 11 eta 7 abstentzio.

Mari Luz Escuderok 5. eta 6. zuzenketen aurkezpena defendatu du.

Gil Sevillanok zuzenketei erantzun die, eta adierazi du laster eskolatzeko berantiarren datuak igorriko direla eta egin beharreko jarduerak aztertuko direla, baina gai zerrendako puntu honetan tramitatzen den testua ez dela baliabide ekonomikoak azaltzeko bide egokia.

5. eta 6. zuzenketak bozkatzeari ekin zaio, eta baztertu egin dira, emaitza honekin: aldeko 5 boto, aurkako 14 eta 6 abstentzio.

Jarraian, 8/2023 Irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta onetsi egin da, emaitza honekin: aldeko 17 boto, aurkako 0 eta 7 abstentzio.

## **4. 9/2023 Irizpenaren zirriborroa.**

Kontseiluburuak adierazi du zuzenketa bakarra aurkeztu dela.

Ortzi Iriartek hartu du hitza, bere zuzenketa defendatzeko.

Zuzenketari buruzko eztabaida orokorra izan da.

Zuzenketa bozkatzeari ekin zaio, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko 2 boto, aurkako 8 eta 14 abstentzio.

9/2023 Irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta onetsi egin da, emaitza honekin: aldeko 15 boto, aurkako 0 eta 9 abstentzio.

## **5. 10/2023 Irizpenaren zirriborroa.**

Kontseiluburuak adierazi du 20 zuzenketa aurkeztu direla, eta proposatu du 5., 18. eta 19. zuzenketak onetsizat jotzea, lantaldeak eta batzorde iraunkorrak onetsi baitzituzten.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

1. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko boto 1, aurkako 17 eta 6 abstentzio.

2. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko 2 boto, aurkako 20 eta 2 abstentzio.

3. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko 8 boto, aurkako 9 eta 7 abstentzio.

4. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko boto 1, aurkako 17 eta 6 abstentzio.

6. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko 3 boto, aurkako 15 eta 6 abstentzio.

7. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko boto 1, aurkako 18 eta 5 abstentzio.

8. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko 6 boto, aurkako 13 eta 5 abstentzio.

9. zuzenketa eztabaidatu da, eta onetsi egin da, emaitza honekin: aldeko 19 boto, aurkako 0 eta 3 abstentzio.

Jakinarazi da 10., 11. eta 13. zuzenketak kendu direla.

14. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko 7 boto, aurkako 11 eta 3 abstentzio.

1. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko boto 1, aurkako 17 eta 6 abstentzio.

Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute 15. zuzenketa.

16. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko boto 1, aurkako 15 eta 5 abstentzio.

Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute 17. zuzenketa.

20. zuzenketa kendu da.

Jarraian, 10/2023 Irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta onetsi egin da, emaitza honekin: aldeko 18 boto, aurkako 0 eta 3 abstentzio.

#### **6. 11/2023 Irizpenaren zirriborroa.**

Kontseiluburuak jakinarazi du 6 zuzenketa aurkeztu direla, eta proposatu du 1.,3., 4. eta 5. zuzenketak onetsizat jotzea, lantaldeak eta batzorde iraunkorrak onetsi baitzituzten.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

2. zuzenketa eztabaidatu da, eta baztertu egin da, emaitza honekin: aldeko 4 boto, aurkako 9 eta 7 abstentzio.

6. zuzenketa kendu da.

Jarraian, 11/2023 Irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta onetsi egin da, emaitza honekin: aldeko 16 boto, aurkako 1 eta abstentzio 1.

#### **7. 12/2023 Irizpenaren zirriborroa.**

12/2023 Irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta onetsi egin da, emaitza honekin: aldeko 16 boto, aurkako 0 eta 2 abstentzio.

#### **8. 2023ko 1. seihilekoko kontuen zirriborroa.**

Kontseiluburuak azaldu du kontseilukideei Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2023ko lehen seihilekoari dagozkion kontuei buruz aurkeztu zaien dokumentua, eta onartzeko eskatu du.

Onartu da, bertaratutako bokalek baiezkoa emanda.

#### **9. Galde-eskeak.**

Iosu Menak Hezkuntza Departamentuari eskatu dio “Musikalia” programarekin gertatutakoaren berri emateko.

Gil Sevillanok jakinarazi dio departamentuak ez duela “Musikalia” programaren kontratua luzatu erabaki tekniko batengatik.

Teresa Módolek adierazi du familia behartsuetako ikasleei itunpeko ikastetxe pribatuetako jantoki eta ekipamenduetako eman beharreko laguntza asko ukatu direla, eta informazioa eskatu du.

Gil Sevillanok erantzun dio une horretan ez duela horri buruzko daturik.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 19:15ean, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.